

## **JASANGARRITASUNARI BURUZKO GRADU AMAIERAKO LANIK ONENARI SARIA 2023-24**

Ondorengo hiru gaitik bi gutxienez ondoen biltzen dituen Gradu Amaierako Lanari emango zaio saria: ekonomia, gizartea eta ingurugiroa.

### **BALDINTZAK:**

- Gradu Amaierako Lana Ekonomia eta Enpresa Fakultatean defendatzea eta, gutxien dela, 7 kalifikazioa lortu izana 2023-2024 kurtso akademikoan
- Sarirako eskaria egitea.
- Saria jasotzera bertaratzea.

### **SARIRA AURKEZTEKO PROZEDURA:**

Honako hiru agiriak bidali behar dira pdf formatuan, posta elektronikoz ([ivan.iturricastillo@ehu.eus](mailto:ivan.iturricastillo@ehu.eus)), Ekonomia eta Enpresa Fakultateko Gasteizko Ataleko GRAL-aren Koordinatzailea.

- Eskari orria behar bezala beteta
- GRALa, baina epaimahaiak egilea nor den jakin gabe har dezan erabakia, datu hauek ezabatu behar dira:
  - ikaslearen datuak
  - GRALaren zuzendariaren edo tutorearen datuak
  - fakultatearen zein ataletan egin den defentsa
- 2-4 orrialdeko laburpena azalduz GRALak jasangarritasunaren arloari egiten dion ekarpena. Hau ere anonimoa.

### **Eskariak aurkezteko epea**

**2024ko azaroaren 18tik 30era** (biak barne).

Gasteizeko Ataleko GRAL-aren Koordinatzaileak eskaera mezuari erantzungo dio (posta elektronikoz) azaroaren 19an, edo lehenago, dokumentuak jaso egin direla jakinarazteko, eta, era berean, mezu hori izango da sarirako eskaria egin izanaren frogia agiria.

**Abenduaren 4ra eguerdiko ordubietarako oraindik ez bada mezu hori jaso, mesedez, eskariaren mezua berbidali, 4an bertan.**

**Arazorik ez badago, Epaimahaiko Lehendakariari 5ean eguerdian bidaliko zaizkio GRAL-ak.**

OHARRA: Eskaria epe barruan bidali zela egiaztatzeko, mesedez, ez bidali mezu berri bat, ostera berbidali jatorrizko mezua.

### EBALUAZIOA:

- Ez da aukerarik egongo hartutako erabakien kontra alegaziorik egiteko, eta ezin izango da erabakien inguruko txostenik eskatu.
- Jasangarritasun Epaimahaiak saria eman gabe utz dezake, haren ustez lanek ez badute kalitate nahikorik.
- Kontuan hartuko dira gutxien dela hiru gaietako bi (ekonomia, gizartea eta ingurugiroa) biltzen dituzten lanak, atal hauetan garatuak:
  1. Aipamena
  2. Eztabaida
  3. Garapena:
    - Gai bakoitza bere aldetik
    - Bi edo hiru gai baterabilduta

### SARIA EMATEA:

Ikasleari diploma bat eta saria emango zaio Arabako Ataleko ikasleen Graduazio Ekitaldian.

Ikasle saritua ez bada ekitaldira bertaratzen saria jasotzera, saria eman gabe geratuko da, sari honetarako ezarritako baldintzetako bat urratuko bailuke.

Horrelakoetan, aldez aurretik eta denbora nahikoaz jakinez gero, epaimahaiak saria beste ikasle bati ematea erabaki dezake, edo saria eman gabe geratu behar den.

**Kurtso honetan, diploma banaketaren ekitaldia maiatzaren arratsalde batean aurreikusita dago, behar besteko aurrerapenarekin jakinaraziko dena.**